

2013-03-20

Guraso eta seme-alaben arteko irakurketa kluba jarriko da abian Laudion

Haurrentzako euskarazko literaturaren inguruan, ehunka ume, irakasle eta guraso batu dira Laudion martxan jarri den Bularretik Mintzora egitasmo arrakastatsuaren barruan. Jakina denez, Laudio Udalak sustatzen du programa hau bere Euskara Arloaren bitartez.

'Eta egitasmo konplexu horren barruan, ekimen oso interesgarria dugu aurten garatzeko: Guraso eta Seme-Alaben arteko Irakurketa Kluba', iragarri dute udal Euskara Arlotik.

Ipuinak, bideoak, asmakizunak, olerkiak... elkarrekiko (guraso + umeak) irakurketatik etekin handiena lortzeko. Guzti guztia euskaraz eta doakoa.

Parte hartuko duten umeek 4-9 urte bitartekoak izan beharko dira.

Sei egunetan (Apirilak 9 eta 23, Maiatzak 7, Urriak 8, Azaroak 5 eta 19) garatuko da, ordu eta erdiko (18:00-19:30) saioetan.

Udal Liburutegian garatuko dira saioak. Gainera, bertan eman behar da izena aldez aurretik, plazak mugatuak direlako.